

ELKARBIZITZA BEHATOKIA GIDA

AURKEZPENA/JUSTIFIKAZIOA

EB ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea. Azken batean, zer lortu nahi dugu behatoki honen bidez? Komunitateko kide guztiek jakin behar dute baloratu eta entzun egingo ditugula, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza izango dutela.

EBk, agian, elkarbizitza-batzordea ekarriko digu gogora; baina EB kontzeptuak beste foro berri bat aldarrikatu nahi du. Egia esanda, elkarbizitza-batzorde horiek, oso asmo ona zekarten, baina, azkenean, eguneroko martxan, diziplina eta zigorra ezartzeko besterik ez ziren erabiltzen. Horrexegatik sortu da EB, jardun demokratikoa sustatuta, dominazio-sumisio eskema guztiak ezabatzeko eta berdinen arteko harremanak sustatzeko. Pertsona guztiek izan behar dute beren erabakiak hartzeko modua, betiere, errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta adostasuna oinarri hartuta.

EB ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko funtsezko organoa izango denez eta foro berria denez, jarduera batzuk proposatuko ditugu talde kohesionatua sortzen laguntzeko; talde horren bidez, ekintza-esparrua adostu nahi dugu eta elkarbizitza positiboa sustatzeko sarea eraiki.

Proposatzen diren jarduerak:

1. EB AURKEZTU hezkuntza-komunitate osoari.
2. EB ERATU: AURKEZPENA
3. EBren HASIERA BATEKO AKORDIOAK
 - 3.1. EBren FUNTZIOAK
 - 3.2. EBren FUNTZIONAMENDUA

HELBURUAK

1. EBren eraketa ikastetxean dinamizatu.
2. EBn pertsonen arteko ezagutza sustatu
3. EB definitzen duten kontzeptu-gakoei buruz taldean hausnartu.
4. EB pentsamendu- eta ekintza-esparru bateratua definitu.
5. EBren funtzionamendua adostu.

EDUKIAK

1. ELKARBIZITZA BEHATOKIAREN DEFINIZIOA
2. TALDEKIDEEN ARTEKO AURKEZPENA
3. PERTSONEN ARTEKO HARREMAN POSITIBOAK
4. ELKARBIZITZAREN KALITATEAN ERAGINA DUTEN ASPEKTUAK
5. BEHATOKIAREN EKINTZAK

ORIENTAZIO METODOLOGIKO OROKORRAK

- Jarduera guztiek hausnarketa pertsonala bultzatu behar dute hasieran, eta, gero, emaitzak kideekin konpartitu behar dira.
- Ikuspegi zorrotzagoa lortu nahi izanez gero, interesgarria da hasieran emakumeen eta gizonen ekarpenak bereizita biltzea. Horela ikusiko dugu zer pentsatzen duten batzuek eta besteek, nola ikusten duten mundua, zertan diren berdinak eta zertan ezberdinak. Zalantzarik gabe, oso baliagarri izango zaigu aukera- eta tratu-berdintasunerako ikasketa-egoerak planifikatzeko eta programatzeko orduan. Horrez gain, justizia eta ekitatea oinarri duten harreman demokratikoak eraikitzen ere lagunduko digu horrek. Horrela egitea erabakiz gero, kontuan eduki behar da taldeak eratzerakoan eta emaitzak biltzerakoan, kolektibo bakoitza bere aldetik bereizita eta aparte aztertu behar dela lehenengo eta behin
- EB DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK: jakiteko modukoa den informazio interesgarria dakarten dokumentuak agertuko dira hor. Horrez gain, norbaitek interesa erakutsiz gero, errefortzu gisa ere erabil daitezke.
- SAKONTZEKO MATERIALAK atalean landutako gaien inguruan sakontzeko materialak agertuko dira.

ELKARBIZITZA BEHATOKIA GIDA

1. JARDUNA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
<p>GAKOAK:</p> <p>→ Non egin behar da aurkezpena? Hezkuntza-komunitateko estamentu guztietan, eta interesgarritzat jotzen diren sektoreetan ere bai.</p> <p>→ Aurkezpenean lagungarria da kainoia eta ordenagailua erabiltzea.</p> <p>→ Ebaluaketarako materialak: postitak (2 kolorekoak: neskak eta mutilak bereizteko), eta EB GIDA AKTA</p>				
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">ELKARBIZITZA BEHATOKIAREN AURKEZPENA</p>	<p>GUZTIRA 45 minutu TALDE OSOA</p>	<p>Dinamizatzailleak POWER POINT programa erabilia aurkeztuko ditu EBren gakoak.</p> <p style="text-align: center;">○○○○○○</p>	<p><u>1. BALIABIDEA</u></p>	
	<p>20 min.</p>	<p>Galderak, eztabaida...</p> <p style="text-align: center;">○○○○○○</p>	<p>"EB AURKEZPENA"</p> <p style="text-align: center;">"</p> <p>POWER POINT</p>	
	<p>15 min.</p>	<p>Dinamizatzailleak bertan azaldu denaren laburpena egingo du: gakoak, harturiko erabakiak, erabakiak hartzeko epeak... etab.</p> <p style="text-align: center;">○○○○○○</p>		
	<p>10 min.</p> <p>BAKARKAKO LANA</p>	<p><u>JARDUERAREN EBALUAKETA:</u></p> <p>Post-it bana eman PARTAIDEEI eta baloratzeko eskatzen zaie, item hauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Interesgarria al da EB sortzea? 1etik 10era bitartean baloratu. ✓ Zer izan da aurkezpenean garrantzitsuena? Hiru gauza azpimarratu. <p><i>Oharra: emakume eta gizonen emaitzak bereizita aztertu nahi izanez gero, bereizita bildu posit-ak</i></p> <p>(EB GIDA AKTAn jaso behar ditu dinamizatzailleak ebaluaketaren emaitzak)</p>	<p>Post-it</p> <p>EB GIDA AKTA</p>	

Urteko Elkarbizitza Plana (UBP) osatzeko gida

2. JARDUNA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
GAKOAK: → Abesti bat aukeratu behar da, proposaturiko hiruren artean (ikus Sentsibilizazio-faseko 3., 4. eta 5. oinarrizko materialak) → FOTOKOPIAK: kide guztientzat EBko 1. erreminta-orriaren kopia bana eta EBko 4. erreminta-orriaren kopia bakarra, han esaten dena jaso behar duenarentzat. → Musika-aparatua eta aukeraturiko kanta.				
EBren ERAKETA: AURKEZPENA	GUZTIRA: 20 min. BAKARKAKO LANA: 5 min. TALDE-LANA: 15 min.	<p>Kide bakoitzari eman EBko 1. erreminta:</p> <p>Unetxo bat eskuaren profila marrazteko eman, eta, gero, abestia ipini. Erreminta osatu oharrei jarraituz.</p> <p style="text-align: center;">○○○○○○</p> <p>✓ Taldean bakoitzak bere azaltzea denen aurrean. Eskuko lehen hatzean zer eta zergatik idatzi duen azaldu behar du bakoitzak; horrela, hatzez hatz, eskumuturrean jarri duena azaldu arte.</p> <p>✓ Prozesuan pertsona batek han esandakoa jaso behar du (1-5 ataletan) EBko 4. erremintan.</p>		<p>EBko 1. erreminta: "EB eraketa: aurkezpena "</p> <p>EBko 4. erreminta: "EB ERAKETA-AURKEZPENAREN SINTESIA"</p>

Urteko Elkarbizitza Plana (UBP) osatzeko gida

3.1. JARDUNA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
GAKOAK: → FOTOKOPIAK: kide guztientzat EBko 2. erremintaren kopia bana eta, aurrekoan bezalaxe, EBko 4. erreminta-orriaren kopia bakarra, han esaten dena jaso behar duenarentzat. → EBko 1. baliabidea ("EB AURKEZPENA") erabili nahi izanez gero, ordenagailua eta proiektorea prest eduki.				
HASIERAKO AKORDIOAK: EB FUNTZIOAK	Guztira : 30 min. BAKARKAKO lana: 10 min.	Kide bakoitzari eman EBko 2. erreminta: -Item bakoitza arretaz irakurri -diren Bi funtzio aukeratu, garrantzitsuenak, eta esan zergatik aukeratu dituzun. ○○○○○○ Taldean bakoitzak bere azaltzea denen aurrean: - Bakoitzak egindako lanaren berri eman gainerakoei; hasierako adostasunak jaso, baita, taldekideen arteko interakzioen ondorioz, gertatzen diren aldaketak ere (b atala).		EBko 2. erreminta: "Elkarbizitza Behatokiaren funtzioak"
	TALDE-LANA: 20min.	- Hausnarketarako unetxo bat; c.1) eta c.2) ataletako erantzunak jakinarazi besteei. - Pertsona batek bilduko du 6. atalean aipaturiko guztia 4. erreminta EBan.		EBko 4. erreminta: "EB ERAKETA-AURKEZPENAREN SINTESIA"

3.2. JARDUNA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
GAKOAK: → FOTOKOPIAKkide guztientzat EBko 3. erremintaren kopia bana eta, aurrekoan bezalaxe, EBko 4. erremintaren kopia bakarra, han esaten dena jaso behar duenarentzat. → Ebaluaketarako materialak: postitak (2 kolorekoak: neskak eta mutilak bereizteko), eta EB GIDA AKTA.				
HASIERAKO AKORDIOAK: EB FUNTZIONAMENDUA	<p>Guztira: 30 min.</p> <p>TALDE-LANA: 20min.</p> <p>Dinamizatzaileak 5 min.</p> <p>BAKARKAKO LANA: 5 min.</p>	<p>Kide bakoitzari eman EBko 3. erreminta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Partaide guztien artean a) ataleko laukia bete - Kolektiboetako ordezkarien dinamika kontuan hartuta, b) atala bete. Funtzionamenduan hobekuntzak behar direla iritziz gero, Behatokiak proposamenak egin ditzake. Estamentu bakoitzean eztabaidatu beharko dira, eta, hala badagokio, onartu. - Pertsona batek bildu behar du han erabakitako guztia (EBko 4. erremintaren 7. atala) <p style="text-align: center;">○○○○○○</p> <p>Dinamizatzaileak taldeari itzuliko dio EBko 4. erremintan, 2, 3.1 eta 3.2 ataletan, jasotakoa.</p> <p style="text-align: center;">○○○○○○</p> <p>JARDUERAREN EBALUAKETA:</p> <p>PARTAIDEEI post-it bana eman eta baloratzeko eskatzen zaie, item hauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ EB ERATU, AURKEZTU ETA LEHEN ERABAKIAK hartzeko orduan egin den lana baloratu, 1etik 10era. ✓ Saioa adjektibo batekin definitu. ✓ Jarduerarekin duzun asebetetze -maila. <p><i>Oharra: emakume eta gizonen emaitzak bereizita aztertu nahi izanez gero, bereizita bildu posit-ak</i></p> <p>(EB GIDA AKTAn jaso behar ditu dinamizatzaileak 2, 3.1 eta 3.2 jardueri buruzko ebaluaketak)</p>	<p>Post-it</p> <p>EB GIDA AKTA</p>	<p>EBko 3. erreminta: "Elkarbizitza Behatokiaren funtzionamendua"</p> <p>EBko 4. erreminta: "EB ERAKETA-AURKEZPENAREN SINTESIA"</p>

OINARRIZKO MATERIALA

- EB 1. OINARRIZKO MATERIALA: "275/2007 ERREGE DEKRETUA, otsailaren 23koa, Eskola Elkarbizitzaren Estatuko Behatokia eratzten duena".
- EB 2. OINARRIZKO MATERIALA: "HIZKUNTZA, HITZAK BAINO ZEOZER GEHIAGO HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTARAKO PROPOSAMENAK -Emakunde"

SAKONTZEKO MATERIALAK

- EB 1. SAKONTZEKO MATERIALA: "Convivencia escolar CONDICIONES BÁSICAS PARA MEJORAR LA CONVIVENCIA ESCOLAR" M JOSE DÍAZ AGUADO "
<http://mariajosediaz-aguado.blogspot.com/2005/07/convivencia-escolar.html>
- EB 2. SAKONTZEKO MATERIALA: "A B C D E L A I G U A L D A D - D E F I N E I G U A L D A D : 125 CONCEPTOS PARA DESCUBRIR LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES"
<http://www.ccbierzo.com/index.php?elementoID=409&PHPSESSID=fab0f75005c95c6b2e87e71f588e5579>
- EB 3. SAKONTZEKO MATERIALA: "SOBRE EL SEXISMO Y LA VIOLENCIA DE GÉNERO" M JOSE DÍAZ AGUADO "
<http://mariajosediaz-aguado.blogspot.com/2005/12/guia-informativa-sobre-el-sexismo-y-la.html>

WEB ESTEKAK

<http://video.google.com/videoplay?docid=2722056198977448487&hl=es>
ELKARBIZITZA BEHATOKIA ETA UBP GAKOAK/CLAVES OBSERVATORIO CONVIVENCIA Y PCANELI ZAITEGI, MAKE IRIGOIEN, MARISA OTADUY, GOTZON QUINTANA eta BEA UGARTE

<http://video.google.com/videoplay?docid=2086090844791801993&hl=es>
ELKARBIZITZA BEHATOKIA MARTXAN JARTZEN- URRETXUKO GAINZURI IKASTETXEA- MARIJO BERASTEGI eta ORDIZIAKO BERRITZEGUNEKO BLANKA KEREJETA aurkezlea

<http://www.convivencia.mec.es/observatorio/>
WEB OBSERVATORIO ESTATAL CONVIVENCIA

<http://www.convivencia.mec.es/portales/>
WEB ENLACES PORTALES EDUCACIÓN Y CONVIVENCIA

http://www.berrikuntza.net/programas/index?id_p=3
ELKARBIZITZA ETA BAKERAKO HEZKUNTZA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

www.ikasle.net
TRATU TXARREN PREBENTZIORAKO WEB GUNEA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

<http://www.isei-ivei.net/eusk/sakon/indexsak1.htm>
EUROPAREN DIMENTSIOA HEZKUNTZAN e-DOSSIERRA

<http://www.obsviolence.com/spanish/presentation/>
OBSERVATORIO EUROPEO DE LA VIOLENCIA ESCOLAR